



## **“Gazteon egoera zaila eta larria da, itxaropena eta ilusioa behar dugu eta egoera aldatzen ez bada etorkizuneko euskal gizartea ez da jasangarria izango”**

- Hau da Itsaso Anduezak, EGK-ko presidentea, gaur Eusko Legebiltzarrean sortu den Gazteria Ponentzian eman duen mezua
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ponentzia ireki du eta, agerraldian, gaurko gazteen egoeraren inguruan hitz egin da: enplegua, etxebizitza, parte-hartzea, bakea, eta abar
- Gazteria Ponentziak hurrengo hilabeteetan jarraituko du, guztira 40-50 agerraldi inguru izango dira, eta EGKtik egiten den lana zerbaiterako balio izatea espero dugu

**Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 18an.** Gaurkoa egun historikoa izan da Euskadiko Gazteriaren Kontseilua eta euskal gaztearentzat: lehenengo aldiz gazteen inguruan hitz egiteko ponentzia edo lantalde bat sortu baita Eusko Legebiltzarrean. Ponentzia goizeko 10.00etan eratu da “Gazteriaren arazo azterketa eta eztabaidarako eta haiei erantzuna emateko lan taldea” izenarekin; Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordearen barnean kokatua, Lur Etxeberria legebiltzarkidea presidente zelarik eta EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EEko ordezkariekin (PP ere ponentzian izango da baina ezin izan dira etorri).

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ponentzian agerraldia egiten lehena izan da eta bere izenean Itsaso Andueza presidentea joan da, Diana González EGK-ko Batzorde Iraunkorreko kidearen laguntzarekin. Anduezak eman duen lehenengo mezua argia eta zuzena izan da: “Gazteok itxaropena eta ilusioa galtzen ari gara irtenbideak ikusten ez ditugulako. Egoera zaila eta larria da eta honi buelta ematen ez badiogu, estatistika guztiek esaten dutenaren arabera, gazte gabe geldituko gara eta Euskadin jasangarria ez den gizarte zaharkitu batean biziko gara”.

Agerraldi hau prestatzeko, talde teknikoak gaiak arloka aztertu ditu eta EGK-ko kide diren elkarte eta pertsona individual anitzen ekarpenak jaso dira egindako bilera irekietan. EGK-k egoera larri honen ikuspegi orokorra aztertu nahi izan du gaur:

### **Enplegua**

“Zergatik beste kolektibo batzuentzat onartzen ez duguna, gazteontzat ondo ikusten dugu?” Prekarietatea eta langabezia arazo larria dira eta lana lortzen dugunean behinbehinekotasuna eta gure eskubideen urraketa nagusi dira. Horren adibide dira guretzat sortzen diren “kontratazio” formula bereziak: bekak, praktika kontratuak, lehen lanerako programak eta horrelakoak. Bestalde, lan emigrazioa beste arazo bat da izan daiteke, askotan atzerrira lan bila joateko prozesu honek eskubideen galera ere sortzen duelako; honi gehitu behar zaio, gai honen inguruan administrazio batzuk eta besteek ematen dituzten kontraesanak dituztela eta ez dakigula zehazki zenbat gazte joan diren. Bukatzeko,



ekintzaile bihurtzen diren hiru gaztetatik batek soilik lortzen du aurrera ateratzea; administrazio publikoetatik, ordea, maiz langabezia bargaude denak ekintzaileak izan behar gara "saltzen" digute eta mezu hau arriskutsua izan daiteke EGKren ikuspuntutik, gazteek sarritan informazio guztia jasotzen ez dutelako. Enplegua gazteen arazoaren oinarria dela esan dezakegu orain jarraian jorratuko ditugun gai guztiekin lotura duelako.

### **Etxebizitza**

Askotan gazteoi ez zaigu burutik pasatzen ere etxe bat erostea, ezinezkotzat den zerbait bezala ikusten dugulako. Emantzipazioa lortzeko zailtasun asko ditugu eta ez dira bereziki alokairu publikoa bultzatzeko eraginkorrak diren politikak martxan jartzen.

### **Aisialdia, astialdia (aisialdi hezitzailea) eta hezkuntza**

Astialdian ibiltzen diren begirale boluntarioen lana, askotan, ez da ikusten, ezta baloratzen ere. Begirale hauen formazioak profesionalizazio prozesu bat jasaten ari da azken urteotan, boluntariotzaren kalitateak alde batera utziz eta gazte asko Euskaditik kanpo ateratzen ari dira tituluak modu errazagoan lortzeko. Honi gehitu behar zaio, profesionalak diren begirale askoren baldintzak ez direla batere duinak propioa den lan hitzarmenik gabe lan egiten dutelako.

Bestalde, hezkuntzaren alorrean LOMCE eta Universidad 2015 bezalako planekin topo egiten dugu: ez dago denboran iraunkorra den eredurik eta ikasketak eskuratzeko gazte askok duten baliabide faltaren aurrean gutxi egiten dela ikusten dugu.

### **Bakea eta bizikidetzatza**

Gaur egun gai honek ez du lehentasunik euskal gazteriarentzat, baina Gazteriaren Kontseilutik bizikidetzan lan egitea oso garrantzitsua dela uste dugu oraindik. Gai honen inguruan parte hartzeko mesfidantzak daude eta ezin ditugu ahaztu gazteen militantzia politikoaren inguruan sortzen den estigmatizazioa.

### **Parte hartzea eta beste gai batzuk**

Parte hartze tradizionalaren krisiarekin batera, paradigma aldaketa bat gertatzen ari da. Gazteok lana eta egoera duina ez dugun bitartean, denbora gutxi eskaini diezaiokegu parte hartzeari. Politikaren desprestigioa dela eta arlo honetan gutxi parte hartzen dugu eta taldeak sortzeko egin behar den burokrazia izugarria da. Azkenik, askotan gazteen inguruan gizartean bultzatzen den irudia negatiboa dela uste dugu: *ni-niak* edo alferrak gara, alkohola eta droga asko kontsumitzen ditugula... irudi hori aldatu beharko genuke.

Arao hauen guztien aurrean, gazteen beharrak jasotzen dituzten politika publikoak eskatzen ditugu, burokrazia erraztea, lan inspektzioak indartzea eta guztion artean gazteen irudi positiboa eraikitzea. Ponentzia honen bidez arazoak ikustarazi eta hauen inguruan jabetzen lagundu eta bukaeran zerbaitetarako balio izatea espero dugu. Honen harira, ponentziatik gazteen eskubideak defendatzeko erabakitzen diren neurriak babestuko ditugu eta hau bermatzeko lege bat eraginkorra bada, honekin ere ados egongo gara.



### **Hauek izan daitezke irtenbideak**

Gaurko agerraldia ponentziaren hasiera izan da bakarrik eta hurrengo hilabeteetan gazteekin lotura duten 40-50 pertsona, elkarte eta eragile hurbilduko dira Eusko Legebiltzarrera. Talde parlamentarioek hainbat agerraldi eskatu dituzte eta gaiak arloka landuko dira: hezkuntza, lan-baldintzak, ekintzailtza, etxebizitza, parte-hartzea, kultura, euskara, astialdia, boluntarioritza, gazteen eskubideak, mugimendu sozialak, drogomenpekotasuna, aniztasun sexuala... zerrenda luzea da.

Ponentziaren hurrengo hitzordua abenduaren erdialdean izango da eta bertaratuko diren hurrengoak Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako gazteria zuzendariak izango dira. Agerraldi inguruan gehiago jakiteko Eusko Legebiltzarrarekin zuzenean harremanetan jartzea gomendatzen dizuegu.

Eztabaidatzen den arloaren arabera, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua berriro ere ponentziara itzuliko da seguruenez eta lantzen diren gaien jarraipena egingo dugu.

**informazio+**

688 67 59 32

Iñaki Goikoetxea Arrufat

**EGK-ko komunikazioa**